

## HIZKIAK BAINO GEHIAGO

**Jarduera honekin hau landuko dugu:**

Bidegabekeriak eta desberdintasunak.

Talde-lana eta lankidetzak.

5. eta 16. GJHak.

**Iraupena**

Saio bat.

**Zikloak** 1, 2**Materiala**

Lau ekipo informatiko: ordenagailuak (ahal izanez gero) edo tabletak.

**Kontuan hartu beharrekoak**

Jarduera honek aurrez aurreko dinamika bat eta aurkezpen digital baten erabilera uztartzen ditu. Horregatik, **lerro hauek irakurtzea komeni da, jardueraren prozesua ondo ulertzeko. Jardueraren dinamika ezagututakoan (eta ikasleak prozesuan zehar ikusiko duena jakiteko), aurkezpena pantailan jarraitzea gomendatzen dugu. Talde baten ibilbidea egitea nahikoa da.**

Jarduera egiteko, prest eduki behar da ordenagailuetan edo tabletetan jardueraren hasierako pantaila, [esteka](#) honetan dagoena.

Taldeek dinamika bateratua egingo dute, baina bakoitzak bere pantailan egingo du, lau taldeek hitzak osatzeko dituzten aukerak ezberdinak baitira. Horrela, jardueraren gogoetaren funtsezko zati den desberdintasun-ukitua sartuko dugu. Horregatik, talde bakoitzak bere hizkia duen botoian egin behar du klik. Garrantzitsua da huts ez egitea.

Lehen probako "letra-zopa" berdina da talde guztientzat. Zazpi hitzak aurkitzean (**elkarbizitza, errespetatzea, hitz egitea, eskubideak, justizia, hezkuntza, berdintasuna**), hurrengo fasera iristeko gakoa izango dute (**berdintasuna**), galdera honi erantzunez:

Aurkitutako hitzetatik zein agertzen da 5. GJHaren enuntziatuan?

Bigarren proba erronka ezberdina da lau taldeentzat, talde bakoitzak hizki-kopuru ezberdina izango baitu.

Hitzen zerrenda bat egin behar dute eskura dituzten hizkiekin. Kontua da taldeek letra-kopuru ezberdina izango dutela, eta, beraz, erraztasun gehiago edo gutxiago izango dutela:

|                            |   |     |    |      |
|----------------------------|---|-----|----|------|
| Taldea                     | A | B   | C  | D    |
| Osatu ezin dituzten hitzak |   | Bat | Bi | Hiru |

Talde bakoitzak lau minutu ditu pantaila horretan sartzen direnetik.

**Garapena**

Lehenik eta behin, azaldu ikasleei zein diren zazpi hitzak. Utzi amaierarako *justizia* eta *berdintasuna* hitzak, bi hitz horietan arreta berezia jarri behar baita. Beharrezkoa bada, ikasleen mailaren arabera, arbelean idatzita utz daitezke hitzak. Egin lau kideko taldeak, jarri talde bakoitza pantaila baten aurrean, eta esleitu talde bakoitzari bere hizkia. Azaldu:

"Jarduera bat egingo duzue, eta letra-zopa bat eta erronka bat ebatzi behar dituzue. *Letra-zopan, hasieran aipatu ditugun hitzak aurkituko dituzue.*

*Erronka: lau minututan letra-zopan aurkitzen dituzuen hitz guztiak zuzen idaztea. Horretarako, agertuko zaizkizuen hizkiak erabili behar dituzue. Hitz gehien osatzen dituen taldeak irabaziko du.*

Jarduera hasteko, egin klik zuen taldearen hizkia duen botoian”.

Denbora hori igarotakoan, eskatu taldeei idatzi duten hitz-kopurua esateko, eta idatzi arbelean. Hitz gehien idatzi dituen taldeak irabaziko du.

### **Egin gogoeta**

Horren ondoren, hitz egin ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Hizki-kopuru bera al zuten talde guztiek, hitzak osatzeko?
- Jarduera nola egin duzuen kontuan hartuta, baldintzak berdinak izan al dira talde guztientzat? Hitz gehien egin dituen taldeak gainerakoen baldintza berak al zituen?
- Bidezkoa al da talde guztiak berdin baloratzea, lortu duten hitz-kopuruaren arabera? Zer egin beharko litzateke talde guztiak berdin baloratu ahal izateko?
- Nola sentitu zarete zuen taldearen baldintzak ezagutu dituzuenean?
- Taldeen arteko bidegabekeria ezagutzeak haserrea edo giro txarra eragin al du?
- Zuen ustez, bidegabekeriako baldintzek haserrealdiak eragin al ditzakete pertsonen artean?

Puntu honetan, azaldu ikasleei jarduera honen bidez erreproduzitu egin direla pertsona askok, bereziki emakumeek, bizi dituzten desberdintasun-eta bidegabekeria-baldintzak, eta bidegabekeria-baldintzek tentsio egoerak sor ditzaketela, baita pertsonen arteko indarkeria ere.

## HIZKIAK BAINO GEHIAGO

### Jarduera honekin hau landuko dugu:

Bidegabekeriak eta desberdintasunak.

Talde-lana eta lankidetzak.

5. eta 16. GJHak.

### Iraupena

Saio bat.

### Zikloak 2, 3

### Materiala

Lau ekipo informatiko: ordenagailuak (ahal izanez gero) edo tabletak.

### Kontuan hartu beharrekoak

Jarduera honek aurrez aurreko dinamika bat eta aurkezpen digital baten erabilera uztartzen ditu. Horregatik, **lerro hauek irakurtzea komeni da, jardueraren prozesua ondo ulertzeko. Jardueraren dinamika ezagututakoan (eta ikasleak prozesuan zehar ikusiko duena jakiteko), aurkezpena pantailan jarraitzea gomendatzen dugu. Talde baten ibilbidea egitea nahikoa da.**

Jarduera egiteko, prest eduki behar da ordenagailuetan edo tabletetan jardueraren hasierako pantaila, [esteka](#) honetan dagoena.

Taldeek dinamika bateratua egingo dute, baina bakoitzak bere pantailan egingo du, lau taldeek hitzak osatzeko dituzten aukerak ezberdinak baitira. Horrela, jardueraren gogoetaren funtsezko zati den desberdintasun-ukitua sartuko dugu. Horregatik, talde bakoitzak bere hizkia duen botoian egin behar du klik. Garrantzitsua da huts ez egitea.

Lehen probako "letra-zopa" berdina da talde guztientzat. Zazpi hitzak aurkitzean (**elkarbizitza, errespetatzea, hitz egitea, eskubideak, justizia, hezkuntza, berdintasuna**), hurrengo fasera iristeko gakoa izango dute (**berdintasuna**), galdera honi erantzunez:

Aurkitutako hitzetatik zein agertzen da 5. GJHaren enuntziatuan?

Bigarren proba erronka bat da, lau taldeentzat desberdina, hitzak agertzen zaien txantiloian jarri behar baitituzte. Horren arabera, hizki batzuk bi hitz osatzeko balio dute, eta, beraz, hitz horiek behar bezala jartzen ez badituzte, hizkiak faltako zaizkie.

Talde bakoitzak lau minutu ditu pantaila horretan sartzen direnetik.

### Garapena

Lehenik eta behin, azaldu ikasleei zein diren zazpi hitzak. Utzi amaierarako *justizia* eta *berdintasuna* hitzak, bi hitz horietan arreta berezia jarri behar baita. Beharrezkoa bada, ikasleen mailaren arabera, arbelean idatzita utz daitezke hitzak. Egin lau kideko taldeak, jarri talde bakoitza pantaila baten aurrean, eta esleitu talde bakoitzari bere hizkia. Azaldu:

"Jarduera bat egingo duzue, eta letra-zopa bat eta erronka bat ebatzi behar dituzue. *Letra-zopan, hasieran aipatu ditugun hitzak aurkituko dituzue.*

*Erronka: lau minututan letra-zopan aurkitzen dituzuen hitz guztiak laukiak behar bezala jartzea. Horretarako, agertuko zaizkizuen hizkiak erabili behar dituzue. Hitz gehien sartzen dituen taldeak irabaziko du.*

Jarduera hasteko, egin klik zuen taldearen hizkia duen botoian".

Denbora hori igarotakoan, eskatu taldeei idatzi duten hitz-kopurua esateko, eta idatzi arbelean. Hitz gehien idatzi dituen taldeak irabaziko du.

### Egin gogoeta

Horren ondoren, hitz egin ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Hizki-kopuru bera al zuten talde guztiek, hitzak osatzeko?
- Jarduera nola egin duzuen kontuan hartuta, baldintzak berdinak izan al dira talde guztientzat? Hitz gehien egin dituen taldeak gainerakoen baldintza berak al zituen?
- Bidezkoa al da talde guztiak berdin baloratzea, lortu duten hitz-kopuruaren arabera? Zer egin beharko litzateke talde guztiak berdin baloratu ahal izateko?
- Nola sentitu zarete zuen taldearen baldintzak ezagutu dituzuenean?
- Taldeen arteko bidegabekeria ezagutzeak haserrea edo giro txarra eragin al du?
- Zuen ustez, bidegabekeriazko baldintzek haserrealdiak eragin al ditzakete pertsonen artean?

Puntu honetan, azaldu ikasleei jarduera honen bidez erreproduzitu egin direla pertsona askok, bereziki emakumeek, bizi dituzten desberdintasun-eta bidegabekeria-baldintzak, eta bidegabekeria-baldintzek tentsio egoerak sor ditzaketela, baita pertsonen arteko indarkeria ere.

## HITZ BATEN BOTEREA

### Jarduera honekin hau landuko dugu:

Hauek dira giza eskubideei eusten dieten balio unibertsalak: **bizikidetza, errespetua, elkarrizketa, duintasuna, justizia, berdintasuna.**

Talde-lana eta lankidetza.

10. eta 16. GJHak.

### Iraupena

Saio bat.

**Zikloak** 2, 3

### Materiala

Txartelak gako-hitzeekin: (txartel bat taldeko)  
Paper jarraitua edo folioak eta errotuladoreak

### Kontuan hartu beharrekoak

Jardueran zehar, goian adierazitako balioak landuko dira, baina une oro "hitzez" ari garela esango dugu, jarduerari esanahia emateko. Jarduerak bi bertsio ditu, ikasleen mailaren arabera. Taldeei hitzen txartelak emango zaizkie, haien esanahia landu dezaten.

### Garapena

**A bertsioa:** Egin 6 talde. Egin galdera probokatzaile bat:

*Zuen ustez, hitz bakar batek aldatu al dezakeela mundua?*

*Talde bakoitzari txartel bat emango zaizue. Txartel horietan balio bana adieraziko da, hitz baten bidez. Egokitu zaizuen hitza aplikatzeko jarduera bat bilatu behar duzue. Horretarako, ekintza zehatzak eta errazak proposatu behar dituzue, balio-hitz hori zuen ingurune hurbilean aplikatzeko eta, hala, hobetzen laguntzeko.*

**B bertsioa:** Egin 6 talde. Egin galdera probokatzaile bat:

*Zuen ustez, hitz bakar batek aldatu al dezakeela mundua? Zein hitz aukeratuko zenukete?*

*Talde bakoitzak balio bat aukeratuko du, hitz batean, taldeko pertsonen egokiena iruditzen zaiena. Horretarako, adostasuna lortu behar duzue taldean.*

*Horren ondoren, talde bakoitzak aukeratu duen hitzari aplikazioa emango dion jarduera bat bilatu behar duzue. Horretarako, ekintza zehatzak eta errazak proposatu behar dituzue, balio-hitz hori zuen ingurune hurbilean aplikatzeko eta, hala, hobetzen laguntzeko.*

### Egin gogoeta

Talde bakoitzak bere hitzak eta planteatu dituen ekintzak partekatuko ditu. Horren ondoren, hitz egin ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Zein hitzetarako izan zen zaila aplikazio praktiko bat bilatzea? Zergatik?

- Hitzek egoerak aldatu al ditzakete? Zuen ustez, proposatu duzuen horrek egoera aldatu dezake?
- Proposatutako ekintzak aplikatu eta talde gisa egoera hobetu al genezake?

Denon artean horma-irudi bat egin daiteke, paper jarraituan edo orrietan, eta honela izendatu:

“Mundu justu bat eraikitzen duten hitzak”, egin dituzten ekintza-konpromisoak adieraziz.

**Bizikidetza**

**Elkarriketa**

**Errespetua**

**Duintasuna**

**Justizia**

**Berdintasuna**

## LAN EGITEKO FITXA

## HAMAIKETAKOA (OPERACIÓN ALMUERZO)

**Jarduera honekin hau landuko dugu:**

"Bake positiboaren" eta egiturazko indarkeriaren kontzeptua.

Besteekiko errespetua.

16. GJHa

**Iraupena**

Saio bat.

**Zikloak** 1, 2, 3

**Materiala**

Bideoak: *Operación almuerzo I* ([esteka](#)) eta *Operación almuerzo II* ([esteka](#))

**Kontuan hartu beharrekoak**

Benetako superheroiek hainbat gaitasun izan behar dituzte, adi egoteko eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko. Behatzen, egoerak aztertzen, informazioa analizatzen... ikasi behar dute, eta, betiere, beste pertsona batzuei lagundu behar diete ikasitakoaz sentsibilizatzen.

Gaitasun horiek praktikan jartzeko, aztertu zer bilakaera izan duten bideoek historian zehar.

Atal horretatik hainbat irakaskuntza garrantzitsu atera daitezke:

- Beste pertsona batzuei indarkeria eragiten zaien egoerez jabetzea.
- Mundu globalean portaera guztiak garrantzitsuak direla jabetzea.
- Beste pertsona batzuei bakearen esanahiaz eta mundu guztiak bakea gogoan izateko moduez sentsibilizatzen laguntzea zein garrantzitsua den sentitzea.

**Garapena**

*Operación almuerzo* bideoak ikustea.

**Arreta-proba (aukerakoa, ikasleen adinaren arabera)**

Bideoa ikusi ostean, eta ikasleen adinaren arabera, galdera-sorta bati ekin diezaiokegu, edukia ulertu dutela ziurtatzeko. Baieztapen hauek egiazkoak edo faltsuak diren erantzun beharko dute:

- Irenek aurkitu zituen ikastetxean izandako abusu-kasuak
- Superheroi taldeari E.S.I. (*Estudiantes Sabios e Intrépidos*, Ikasle Jakintsu eta Ausartak) esaten diote.
- Jolas-orduan, lagunez inguratuta egoten zen beti Lucía
- Taldeak Dan Doguerra izeneko maltzur berria aurkitu zuen
- Taldea Akademiako Superheroi Artxiboan sartu zen
- "Finis Vitae"-ren atea irekitzeko gakoa hiru zenbaki izan ziren
- "Tenebris Domina" esamoldeak "dominoa dugu" esan nahi du

- Eskolako haurrek bat egin zuten hamaiketako lapurretaren arazoa konpontzeko
- Benetako superheroi batek mundu guztia mobilizatzen du bidegabekeriaren aurka.

## Egin gogoeta

Ipuinaren edukiari buruz hausnartzea, honelako galderetatik abiatuta:

- Ezagutzen al duzue *Operación almuerzo* istorioko abusatzailearen antzeko egoerarik?
- Zer esan nahi du bakeak, superheroiek artxiboan aurkitzen dutenaren arabera?
- Istorioan bi indarkeria-mota aipatzen dira: agerikoa eta ikusezina. Zein da haien arteko aldea?
- Zure ustez, zein ekintza-motatan egin ditzakegu gauzak Dan Doguerrarekin lankidetzan?
- Azaldu zergatik izan zen funtsezkoa talde-lana istorioko arazoak konpontzeko.
- Zein da Tenebris Dominaren papera gatazken sorreran?
- Zergatik da garrantzitsua bidegabekeriak ikusaraztea egiturazko indarkeriaren aurka borrokatzeko?
- Estrategia ona iruditzen al zaigu beste pertsona batzuk sentibilizatzea indarkeria horren inguruan? Inoiz egin al duzue?
- Zuen eguneroko bizitzan, zer ekintza egin ditzakezue zuen giroan bakea sustatzeko? Zer egin dezakegu gai hau ezagutarazteko?

Komentatu garrantzitsuak iruditzen zaizkizuen irakaspenak.